PORRONTXO

JAIAK

iraiak

8-16

Euskarri hutsa. Edukirik ez. Nondik hasi? Ideiak buruan, baina euskarria hutsa. Nola antolatu, nola egituratu, sormenak gogoaren infinitoan eratutako mila piezatako puzzle hori? Idazle bat izan liteke, eleberri baten hasieran; margolari bat, mihise zuriaren aurrean; eskultore bat, enbor gordinari begira; musikaria, musika tresna eskuartean, pieza berri bat konposatzeko asmotan... Hitz batekin hasten du bere lana idazleak; pintzelkadaz marra batekin margolariak koadroa; zizelkada batez tailagileak eskultura; lehenengo akordea joaz musikariak abestia... Eta pixkanaka-pixkanaka, hitzez-hitz, marraz-marra, zizelkadaz-zizelkada eta akordez-akorde, irudimeneko pieza soltеak bata bestearen ondoan antolatuz, osotasun bat gorpuzten da: A R T E L A N B A T .

Gian badira idazleak, margolariak, eskultoreak, musikariak... eta badira, Atotxatik Polloera, Porrontxotako kuadrilak. Eta hauek ere, urtero-urtero, sormen ariketa eder eta aberats bat egiten dute: esku artean duzun egitaraua. Hamaika bileretan elkarlanean osatua, mimo handiz landua eta ederki antolatua. Porrontxo Jaiak dira auzotarron eleberria, koadroa, eskultura eta abestia. Gure sormenetik, gure lanaren bitartez, gure gozamenerako urtero-urtero sortzen dugun A R T E L A N A .

Ta hemen dira, azkenean, 2012ko Porrontxo Jaiak! Osatua daukagu jada aurtengo artelana! Orain, beraz, gozatzeko garaia iritsi da! Gure artean behar luketenak gogoan, kanpokoari ongi-etorriz, bertakoa errespetatuz, lagunartean, umore onez eta A L A I T A S U N E Z . . .

Ondo pasa porrontxo jaietan!!
G O R A G U T A G U T A R R A K ! !

Jaiak

Porront

Irailak

Festa usainean 8 LARUNBATA

14:00 BERTSO BAZKARIA Kata taberna parean: BEÑAT GAZTELUMENDI, JULIO SOTO eta...

10-11-12

ASTELEHENA Badator badatorrena

16:00 Txikienen gozamenerako, eta haundien inbiditarako, Navar Producciones-en eskutik APAR FESTA, GOMING-a eta PUZGARRIAK Plaza Haundin. Donostia Kultura.

ASTEARTEA Ez da ez lehena

17:00 MARGO TAILERRA eta ERAKUSKETA etxeko txikienentzat Plaza Haundin. Ez ahaztu! Pintzelak norberak etxetik ekarri! Eta gero txokolate bero-bero eta goxo-goxoa! Ummm!

18:00 ...baina utzi lekua TALO TAILERRA egingo dugu ondoren trikitilariek alaituta Plaza Haundin.

19:00 Sudur Puntan IKUS-ENTZUNEZKO LAGUNKETA Plaza Haundin SIN TOTXAren eskutik.

ASTEAZKENA Gastroporrontxoa

17:00 Haur eta Gaztetxoentzat JOLASAK Plaza Haundin.

18:30 PORRONTXO JAIETAKO TABERNEN IV. PINTXO LEHIAKETA Plaza Haundin trikitilarien laguntzaz. Utzi baten bat berandu iristen denarentzat!

18:30 TXOKOLARTEren eskutik "Paisaia Etzanak" ZANPAGAILU BIDEZKO KAMISETEN INPRIMAKETA Tejeria kaleko Garraxi taberna parean, kamisetak norberak ekarri!

19:00 "Gure esku dago" FLASHMOB herrikoiaren entsegua Plaza Haundin.

19:30 LA CIGARRA Y EL GRILLOren MUSIKA EMANALDI INSTRUMENTALA Kata taberna parean.

Gora gu ta gutarrak! 13 OSTEGUNA

17:00 BURUHAUNDI eta ERRALDOIAK LAGUNAK txarangak gidatuta.

17:05 Zatozte Jaitsiera hasi aurretik AURPEGIA MARGOTZERA Karmengo Ama 60 zenbakian, Topagune parean.

17:30 HAURREN JAITSIERA Porrontxinarekin, Porrontxorekin eta Buruhaundiekin. Aupa gaztiak! (Eta gurasoak! Jeje).

18:30 URTXINTXAren eskutik "Txantxariak" IKUSKIZUNA Plaza Haundin. Donostia Kultura.

19:00 ORGEN PRESTAKETA. Baten batek ez badu ulertu, agian alderantziz ere galde daiteke... Kalean gora behar bezala joateko KARROEN TUNIN TAILERRA.

20:00 PREGOIA+TXUPINAZOA!!!

20:01 ORGAK (lehenago aipatutakok KARRO horiek) ahal bezala hartu eta burua galdu gabe goazen KALEAN GORA, PORRONTXO & PORRONTXINAren atzetik, LAGUNAK txarangarekin batera.

21:00 BATUKADAK hartuko dio lekukoa txarangari TAUPADA taldearekin.

22:00 Koadrilen KARAOKEA Plaza Berriko karpan. KARRITO TXAPELKETA, tuneatutako karrorik hoberena aukeratuko da. Adios Paris.

22:30 LAIOTZ taldearen EMANALDIA Plaza Haundin.

22:30 Ohitura onak ez galtzeko BALDARRAK TXARANGA auzoan zehar.

01:00 KOADRILENTZAKO JOLASAK Plaza Haundin. Parte hartu!

txojaiak

14 Haur eta gazte eguna OSTIRALA

11:00 ENTZIERROA Tejeria kalean. Ez ahaztu egunkaria!

12:00 Erregaia sabelerako: Plaza Haundin HAMABITAKOA (12tan dalako) eta TRIKITILARIEK jarriko dute giroa, seguru.

12:00 HIPO eta TOMAX PAILAZOAK, "Papo Pupa" ikuskizuna Plaza Haundin. Donostia Kultura.

17:00 Adinekoek ere goza dezaten TRIKITILARIAK Aldakoneako egoitzara joango dira. Gora aiton amonak! Onenak zeate!

17:00 KRISTON FESTA: Porrontxina & Porrontxo, Buruhaundiak & Erraldoiak eta BOLINGA SOUND SYSTEM, MOZORRO FESTA!

18:00 ANTXETA-TTANTTAKUNen eskutik ANIMAZIOA Plaza Haundin haur eta gazteentzat.

19:30 STARRING: TRAPU ZAHARRAK taldea. "Ametsetan bizi" ANTZEZLAN MUNDIALA dakarte Plaza Haundira. Donostia Kultura.

20:00 Haurrentzat (gurasoei batez!) AFARI-MERIENDA Plaza Haundin pilotaleku ondoan. (Txartelak Arkatza liburudendan salgai)

21:30 ZEZENSUZKOA Tejeria kalean. Harrapatzen bazaitu?... Lasai badago seguroa.

22:30 Plaza Haundin DULTZEMENEOA TRAKETS taldearekin.

00:00 BOLINGA SOUND SYSTEM auzoan zehar.

01:00 KOADRILEN JOLASAK Tejeria kalean BOLINGA SOUND SYSTEM-en laguntzaz.

03:30 Hotzez dagoenarentzat edo bero-bero dijoanarentzat. TXOKOLATE BEROA Plaza Haundin. Ahaztu gabe: edateko da.

Gazte eguna
Aupa Gaztiak! (Eta puretillak!)

14:30 GAZTE BAZKARIA Plaza Haundin.

18:00 GAZTEEN ARTEKO JOKOAK Tejeria kalean.

20:30 ONGI-ETORRIA atzerriko lagunei EGIAKO GAZTE ASANBLADAREN eskutik (beste auzoetakoei alegiya) Atotxan eta kalejira BOLINGA SOUND SYSTEM lagunduta.

22:30 KONTZERTUAK Plaza Berriko Karpan: ASS-R + TACUMAN + Talde sorpresa!!!

15 Egia Herrira eguna LARUNBATA

08:00 LAGUNAK TXARANGA auzoan zehar.

11:00 "Mariz Macozzi" IKUSKIZUNA, BAZEN BEHIN CLOWN taldearen eskutik eta TXOKOLATE JATEA Gladys Enean.

11:00 PALA FINALAK frontoian trikitilariek alaituta.

11:00 ZAZPIRETAN LEHENAK JOTEROAK Plaza Haundin. Gora La Nabarra Marítimaaa!

11:30-13:00 EGIAKO PRESOEN ESKULANEN ERAKUSKETA Plaza Gorrin.

12:00 Haurrentzat GINKANA EGIAKO HAUR TXOKOAren eskutik Gladys Enean (eguraldi txarra eginez gero Haur Txokoan egingo da).

12:00 TXERRI ERREA Plaza Haundin, aurrez bazkaritarako gordetzeko aukera egongo da.

13:00 Koadrilen arteko FUTBITO TXAPELKETAREN FINALAK kiroldegian.

INFO+ www.porrontxojaiak.org porrontxojaiak@porrontxojaiak.org ZURE MUGIKORREAN

14:30 KOADRILEN BAZKARIA aurten ere Plaza Haundin. (Bai, kafea eta kopa etxearen kontura!) + LA JODEDERA.

16:00 ESKUBALOI TXAPELKETA kiroldegian EGIA ESKUBALOIAK antolatuta.

17:00 BURUHAUNDI eta ERRALDOIAK KAÑA2KAÑAko trikitilariek lagunduta.

17:30 13-17 urte bitarteko gazteentzat PERKUSIO TAILERRA GAZTELEKUaren eskutik Gladys Enean (eguraldi txarra eginez gero Gaztelekuan egingo da).

18:00 Emakumezkoen ERAKUSTALDI SOFBOL-PARTIDA kiroldegian.

18:00 Eta digestioa egiten hasten geanean KOADRILEN OLINPIADAK (ez kolunpiadak) Tejerian, EGIALAIko musikari auzotarrek lagunduta.

18:00 Haurrentzat "BASERRIKO KIROLAK" KULKIren eskutik Plaza Haundin, Donostia Kultura.

19:30 "Gure esku dago" FLASHMOB herrikoiaren GRABAKETA Plaza Haundin.

20:00 TREBESKA taldearen DANTZALDIA Plaza Haundin.

20:00 SUDUR PUNTAN ikus-entzunezkoen SARI BANAKETA Plaza Berriko karpan.

20:30 PORRONTXOETAKO XV. HERRI KROSA trikitilariek alaituta.

21:00 ZEZENSUZKOA Tejeria kalean.

22:00 IRAUNKORRAK TXARANGA auzoan zehar.

23:00 Beteranoentzako GUATEKEA Tejerian.

23:00 HAITZAMA taldearen EMANALDIA Plaza Haundin.

00:00 KALEJIRA+AURRESKU HERRIKOIA Porrontxo & Porrontxina eta zanpanzarrekin.

01:00 BALDARRAK TXARANGA auzoan zehar.

01:00 DJ-ak Plaza Berriko Karpan: PORRONTXO GANSTA XOUA + DJ KAZZ

01:30 ROCK KAM BROM!!! auzoan zehar.

16 Euskal Jaia IGANDEA

07:00 GOSARIA Plaza Haundin. Menua: OILASKO ERREA. (Esan Oilaskori turnoa daukala).

08:00 JATORRENAK TXARANGA Egian zehar. Non bestela?

11:00 Eta ondoren PILOTA FINALAK Trikitilariak honea ere joango dira.

12:00 SAGARDO DASTAKETA eta UNAI GAZTELUMENDI, AITOR SARRIEGI eta SUSTRAI KOLINA BERTSOLARIAK Plaza Haundin.

14:30 BAZKARI HERRIKOIA Plaza Haundin DONOSTI-GAIN, UR ZALEAK eta ARRANO elkarteek antolatuta.

17:00 Plaza Haundin HERRI KIROLAK, hau da hau sasoia! Trikitilariek alaituta.

19:00 SARDIÑA ERREAK Plaza Haundin.

19:00 DANTZALDIA LAKET taldearekin Plaza Haundin. Presta zaitezte dantzarako!

20:00 JATORRENAK TXARANGA auzoan zehar.

21:30 Koadrilen KALEJIRA Porrontxina & Porrontxorekin.

22:00 AZKEN TRAKA.

00:00 GUI AR DE GUORLD.


BADATOZ! PRESTATU ZAITEZ
PORRONTXOETARAKO!
GURAIZEKADAK GURE ERRAIA
PORRONTXO 2012
JAIAK
IRAILAK 8TIK 16RA

PORRONTXO
JAIAK
EGIA
2012
IRAILAREN
8TIK
16RA

EGIAKO
PORRONTXO JAIAK
012ko IRAILAK 8tik 16ra

PORRONTXO
JAIAK2012
EGIA
irailaren
8tik-16ra

PORRONTXO
JAIAK2012
IRAILAREN 8TIK 16RA
BADATOZ!
EGIA HERRIA

PORRONTXO
JAIAK
IRAILA
8tik 16ra

porrontxo
jaiak2012
irailaren 8tik 16ra
egia

PORRONTXO JAIAK
EGIA 2012
Irailak 8tik 16ra